


Ezpalak

JON TORNER

Kemen Lertxundi poeta eta musikari ondarroarrak *Galdutako zubixak* (Gaztelupeko Hotsak) bere aurreneko diskoa plazaratu du. Kanta batzuk www.myspace.com/kemenlertxundi webgunean entzun ditzakezue.

Toti Martinez de Lezea idazle gasteztarrak haurrei zuzenduriko *Nur eta irlandar gnomoa* eleberria argitaratu du Erein argitaletxearen bidez. Euskaraz eta gaztelaniaz idatzitako obra horrek zortzi urteko haur baten eta urrutitik etorritako ipotx baten arteko gorabeherak kontatzen ditu. Nur izeneko pertsonaiaren abenturetan oinarritutako bildumaren lehenengo alea da. Hurrengo urtean beste liburu bat argitaratzeko asmoa du autoreak. *Nur eta irlandar gnomoa* Juan Luis Landak ilustratu du.

UR kultur taldearen ekimenez, hamar pintoreren obrak jarri dituzte ikusgai Senpereko Larraldea etxean. Jose Mari Apezetxea, Kepa Arizmendi, Gonzalo Etxebarria, Hortense Häusling-Fourneau, Peio H., Rikardo Paskual, Ana Marin, Tomas Sobrino, Auxtin Zamora eta Rafäelle Van Hulle artisten lanak. Azpian Hortense Häusling-Fournearen *Dantxaria* oleoa duzue.



Atxukale.com webgunean Mutriko kanta zaharrak biltzen hasi dira herriko hainbat eragile. Internauta batek egindako proposamenari heldu eta kanta horiek betiko desagertu ez daitezten ari dira lanean. Inon jasoak ez zeuden *Arno'ko Gurutza*, *Mutriku herria*, *Bi aeroplano*, *Hiru ta hiru sei* eta *Gabon Gabonketa* bezalako abestiak jaso dituzte dagoeneko. Bildutako kantekin herriko ikastetxeetan zabalduko den CDa plazaratuko dute Mutriko hainbat musikaririk. Bertso eta musika eskoletako kideak, ikastetxeak, kultur eragileak eta Udaleko Euskara Batzordea ari dira proiektuan parte hartzen.

Argazkiak.org: abian da fotolog zerbitzu euskalduna


ARGAZKIAK.ORG doako zerbitzua da. Fotolog.com-en edo Flickr-en ez bezala, nahi bezain beste argazki gorde eta partekatu daitezke doan webgune horretan. Zerbitzu euskalduna da gainera, eta eskainiko dituen edukiak libreak izango dira. CodeSyntax enpresak jarri du abian proiektua. Webgunearen gaineko informazioa biltzeko blog bat ere sortu dute: www.blogak.com/argazkiakorg.

ZIHARA (CC-BY-SA)



“Non, nondik, alde, aurka” liburua online jarri du Artelekuk

GABRIEL VILLOTA TOYOSEK idatzitako *Non, nondik, alde, aurka*. *Arteari buruzko euskal kronikak mendearen hasieran* liburua PDF formatuan deskarga daiteke Artelekuren webgunetik (www.arteleku.net). Lan horretan jasotako iritzi-zutabe eta testu gehienak Gara egunkariaren Mugalari gehigarrian plazaratu zituen Villotak, 2000 eta 2004 bitartean. Gainerakoak hainbat artistek idatzi dituzte. *Non, nondik, alde, aurka* liburuak jarri du abian *Kritika* bilduma.



[Rafa Zulaika Baionako Euskal Museoko zuzendariak Aldaketa 16 aldizkarian](#): «Izendapenari esker jende gehiago joango al da Ekaingo erreplika ikustera? Ez dut uste. Sakonagora joko nuke. Ondarearen benetako gizarteratzea lortu behar dugu (...) Urdaibaikoa gauzatzen ez bada ere, orain bezala, Guggenheimaz jarraituko dugu hizketan. Besterik ez balego bezala. Museoaren Legea behingo batean kontutan harturik, Euskal Herri osoko museo arteko—Ipar Euskal Herria barne—politika, plangintza... bideratzeko erabiliko nituzke 100 milioi euro horiek. Nor da nor euskal museotan? Nork egin behar du zer? Zergatik museo batzuk itxuraz primeran daude eta beste batzuk sufritzen bizi dira? Zergatik daude museoen arteko desorekak?».

[Iñaki Aldekoa idazleak Deian](#): «Gurea bezalako literatura eta kulturen arrisku nagusia txokokeria izaten da. Nik ere maite dut gurea, baina konplexurik gabe, errekonozituz ez garela gauza handia izan (...) Gurean izan behar du, inon izatekotan, ezaguna gure literaturak. Azken finean, euskal literatura euskaldunok irakurtzeko idatzi izan da. Bizirik eta osasuntsu dagoen literaturaren oinarriak hizkuntza batean eta kultura batean daude sendo. Kanpoan ezagutzeak gero datoz (...) Berez literatura kritikak eta literaturaren historiak zerbaitezarako badira idazleen lana hobe ezagutzen laguntzeko dira. Hala, ko historia liburuek euskaldunok geure burua hobe ulertzeko eta ezagutzeko balio beharko lukete».